BIZITEGI ERAIKINA **EUSKAL HERRIA 3**
D MAILA



Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1895

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi 1913ko fatxada planoko jasodura bat eta 1959ko fatxada planoko beste jasodura bat. Harlanduzko eraikuntza, erdialdeko baoan zurezko begiratoki bat duena, 1935. urtekoa. Begiratokien eta balkoien antolamenduaren arloan izan ezik, jatorrizko zatiaren apaingarriei, sekzioari eta abar dagokionez Euskal Herria 5en berdina da, nahiz eta bataren eta bestearen egileak desberdinak izan. Behe oineko hiru baotatik bi aldatuta daude.

Babes erregimena.
1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura (5. goi oina).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.